

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Ondare Kudeaketa

#### **Vitoria-Gasteizko Arkaia menpeko toki-erakundeko 26. sektoreko 7. lursailari dagokion erregistro-funtsa lizitazio bidez besterentzeko dosierra abiaraztea, baldintza-agiria onestea eta lehiaketa-deialdia egitea**

Udala da Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean I-4574 erreferentzia duen lursailaren jabea, zeinek ondare-ondasunaren izaera baitu, Udalaren lurzoru-ondarearen izaerarekin, eta 5. Jabetza Erregistroan inskribatuta baitago, 33.464 funts gisa, deskribapen eta mugakide hauekin:

“Bizitegi-lursaila, forma irregularrekoa, familia bakarrarentzako; mugakide: iparraldean, bide publiko berria; hegoaldean, sortutako 1. eta 2. lursailak, A.1.1 eta A.1.2 izenekoak; ekialdean, sortutako 8. lursaila, A.1.8 izeneko; mendebaldean, sortutako 6. lursaila, A.1.6 izeneko. 1.125,00 m<sup>2</sup>ko azalera du, 555,140 m<sup>2</sup> eraikiko bizitegi-aprobetxamendu eraikigarria dagokio, eta helburu urbanistikoa plan partzialean xedatutakoari egokitu beharko zaio. Lursail horretan familia bakarreko etxea eraikitzea aurreikusten da.

Katastro-erreferentzia: 19-228”

Lursail hori besterentzeko baldintza-agiria onestea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko otsailaren 12an. Oinarrizko prezioa, lizitatuzaileek gora eginez hobetu ahal izango duten lizitazio-tasa, 166.932,45 eurokoa da (ehun eta hirurogeita sei mila bederatziehun eta hogeita hamabi euro eta berrogeita bost zentimo). Kopuru horretan ez daude sartuta zergak.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira eskualdatzeak berekin dakartzan gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzearen gastuak, notario-gastuak, erregistro-gastuak, zergak eta gainerakoak.

Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25— aztertu ahal izango da dosierra, alde zuzenetik hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren bezperara arte, herritarrei laguntzeko bulegoko jendaurreko ordutegian.

Baldintza-agiria <http://v-g.eus/Arkaia7> helbidean kontsultatu ahal izango da.

Proposamenak Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behe; 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira, 08:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, urriaren 12ko 1098/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, edo postaz, 30 egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Postaz igorri gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lehiatzaileak, eta bidalketa egunean bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz ([ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org](mailto:ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org)).

Bi eskakizun horiek bete ezean, iragarkian adierazitako epea bukatzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen badu proposamena deialdia egin duen organoak, ez da hura onartuko.

Edonola ere, adierazitako datatik hamar egun natural igarotzen direlarik proposamena iritsi ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Aurkezteko epea bukatzen delarik, balorazio-batzordea eratuko da —hurrengo bost egun baliodunetan—, zeinek gaitasun-betekizunak betetzen diren egiaztatuko baitu, eta lizitatzailleen proposamenak jasotzen dituzten gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoaren eguna eta ordua zehaztuko —<http://v-g.eus/Arkaia7> helbidean argitaratuko da—.

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, akta egingo, eta Tokiko Gobernu Batzarrari adjudikazio-proposamena helaraziko, onets dezan.

Adjudikaziodunak 8.346,62 euroko bermea eratu beharko du 10 egun balioduneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 12an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**IÑAKI GURTUBAI ARTETXE**